

**1/2022 ZIRKULARRA, 2022KO AZAROAREN 22KOA, ONDARE ETA KONTRATAZIO ZUZENDARITZARENA.****HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZU EDO KUDEAKETA EKONOMIKOKO ZUZENDARITZAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK****GAIA: EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOKO PLATAFORMAN SEEP BIDEZKO FINANTZAKETA DUTEN KONTRATUEN BALDINTZAK BEHAR BEZALA BETETZEARI BURUZKO ALDERDIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 5. 8 artikulua araber, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenen artean honako hau dago: "c) Kontratazioaren arloko zirkularrak ematea eta gomendioak edo jarraibideak onartzea".

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planak finantzatutako kontratuei ezartzen zaizkien betebeharrak behar bezala betetzeko, Zuzendaritza honek egokitzen jotzen du zirkular hau egitea, Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratzean gerta daitezkeen akatsak saihesteko eta, hala, hura ez betetzeak izan ditzakeen ondorioak murrizteko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan eta Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten neurrien mugari eta helburuen eta aurrekontu eta kontabilitate betearazpenaren jarraipena egiteko eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera, hainbat baldintza formal bete behar dira finantzaketa jaso ahal izateko, gatazkak saihesteko eta etorkizuneko balizko auditoretzak gainditzeko.

Alde batetik, antzeman da Plataforman argitaratutako kontratu askoren kontratuaren gaian ez dela agertzen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9.3 b) artikuluan eskatzen den finantzazio-aitorpena.

*“3. Betebeharrak Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 34. artikulua 2. paragrafoaren arabera errespetatzeko, eta, bereziki, informazio espezifiko koherentea eta eraginkorra dela eta hartzaile askori (komunikabideak eta publikoa barne) eman zaiola bermatzeko, estatu kideak hau egin beharko du: (...)*

*b) Finantzaketa-akordioaren 10. artikuluan jasotzen dena behar bezala betetzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko garatzen diren proiektu eta azpiproiektu guztietan EBren ikurra modu egokian eta nabarmenean azaldu beharko da, finantzaketa-adierazpen egoki baten bidez, hau dioena (tokiko hizkuntzetara itzulita, hala dagokionean): “Europar Batasunak finantzatuta - Nextgeneration-EU” PRTR logoaren ondoan (<https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual> estekan eskuragarri). Era berean, esparru horretan egiten diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek honako erreferentzia hau izan beharko dute, bai goiburuan bai gorputzean: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU».*

Hala, bada, SEEPk finantzatutako kontratuan, gaiaren atalean, «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU» erreferentzia agertu beharko da.

Bestalde, SEEPren finantzaketaren barruan datu ekonomikoen fitxan agertzen diren kontratu asko ez dira Europar Batasuneko funtsek finantzatutako kontratu gisa agertzen. Alde horretatik, Sarrera atalean «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana» laukia markatzen bada, Datu ekonomikoak fitxan, «EBko funtsekin finantzatua» laukia markatu behar da. Lauki hori aktibatzean, finantziario-ehunekoa eta proiektuaren identifikazioa (EGEF funtsak, NEXT Generation...) adierazteko aukera ematen da.